

“PERU ABARKA”-ren IRAKURPEN BERRIA

I. M.^a Barriola

Zer asmorekin idatzi zuen Juan Antonio Mogelek euskal literaturan ain goimailan degun “PERU ABARKA”, adierazia dago beronen itzaurrean. Bertan dio, ondatzaileak agertzen ez diren basoetan soilik, sortze garbian iraun duen izkuntza baten edertasuna agertzea, Aberriarentzat serbitzu aundia litzakela iruditzen zaiola. Eta onen ondoren, Elkarrizketa auek ez dituela eusko gaztediari baizik eta txit aintzakotzat artuak direneri zuzentzen dituela. Bi itzetan esateko: irakaspen bainon, sasi-jakintsuen astin gisa sortuak direla.

Egilearen funtzesko elburuak, ondo lortuak gainera, bi agertzen dire: baserritarren eta kaletarren euskera ezagueraren ezberdintasuna nabari araztea eta gure izkuntzaren aberastasuna, beste edozein izkuntzen parekoa, azaltzea. Egia da Peruren aoran Mogelek jartzen dituen itzik geienak baserri edo landa ekintzetakoak direla, kaletarrentzat, beraz, ez jakinak izatea ez da ain arrigarria; gutxiago artara jarriak ez diren kaletar eskolatuentzat. Baina au ala izanik, Mogelek ondo zekien bezela, aitzaki ederra kaletar euskaldunen aurka, beren zabarkerien aurka, aotza altxatzeko, egiten duen bezela. Ez, itzak ez jakiteagatik, ikasi eta erabili bearrean euskaldun jatorren entzumenena ilduratzten dituzten erderazkoak sartzeagatik batez ere. Euskera aaztu edo zikintzen dutenen gaitzeppen bizia agertzen digu egileak bere liburu onetan.

Ez nijoa ainbeste idazlek, ezagun eta aipagarrienak (1), bein eta berriz “PERU ABARKA”-ren alde idatzitako adierazpen jakitsuak berresatera. Orri auek idaztera jartzerakoan bestelakoa zen nere xedea. Lenengo aldiz Mogelen liburutxoa irakurri nuenean, sendakintza aldeko asmo baten bete gogoa sortu zitzaidan. Ez bainuen utsezko ikusten Peruren mintzalaguna Barberua izatea. Autaketa au, zergatik?, galdetze nion nere buruari. Moge- len asabaren langintzak ikustekorik zuela ager zitzaidan bereala.

(1) JUAN SANMARTIN: *Mogel. Bere bizitza ta Lanak*. Itxaropena. Zarautz, 1959.

Bai eta noski Koldo Mitxelena (2) Mogelen aurrerakoak sendagile zirela gogora ondoren, au dionean: "gizon zuurra izanik, bere irizpenetikan alde uzten ditu sendagileak, ez ordea beren menpekoak (Barberu edo Zirujanoak) beeko agertzen dituenak argiro, sendaki gai ezaguntzan eta Anatomico jakite jardueran, ezurrei buruz gutxienez".

Orain urte batzu, Mogelen asabak zeintzu ziren eta bakoitzaren biografiaz zati bat argira zuen Justo Gárate sendagileak (3). Aien artetik, iru azkenekoak dire nere arloentzat berezienak; sendakintza lanetara jarriak bait zeuden irurak. Auek dire: ANDRES MOGEL VICENTE, Errioxako Alfaron jaioa eta Rueskan (Zaragoza) Zirujano izana. DOMINGO MOGEL MUÑOZ (1685-1711). Rueskan jaioa, Alfaron (?), Agurainen (Salvatierra) eta Markinan sendagile. Erri ontan mundura etortitako bere seme JUAN IGNACIO MOGEL eta PEREZ DE ALMAZAN (1718-1785) Eibar, Deba eta Markinan sendagile. Eibarren jaio zen bere seme JUAN ANTONIO MOGEL eta URKIZA (1745-1804) apaiza, "PERU ABARKA"-ren egilea; eta Deban bere anai JUAN IGNACIO MOGEL eta URKIZA (1750-1783) sendagile, Arrasate (Placencia de las Armas), Deba eta Azkoitia lan egin zuena.

Mogel idazlea degu, beraz, Zirujano baten birloba eta sendagileen biloba, seme et anai. Sendagile giroa zen, orretaz, Mogelen sendiko giroa, oi dan eran eguneroko bizia marratzen zuena. Sendagile eta Zirujanu edo Barberu beren artean ondo konpontzen ez zirela, jakina da. Batzuek besteen osagarri bearrean, maiz aurka zebiltzenak. Sendagileek goragotasun eta jakintasun etsipenaz; errikoiagoak eta esku lanetan trebeagoak besteak. Mitxelena dionez sendagileen menpean bear luketeenak, ala izanik ere, parean eta batzuetan gorago agertzen, edo ager naiean, ibiltzen zirenak. Emendik, beren arteko eztabaidak, naiko gogorrak sendagileen aldetik batez ere.

Senditikan, bada, zetorkion Mogeleri bere liburuan Barberuen aurka azaltzen duen grina antzeko ura. Eta orregatik iruditzen zait Peruren izketa laguna aukeratzerakoan ondo zekiela nor zuen egokiena. Idaztea bururatu zitzaionean, bere asmo nagusien atzetik beste bat zekarkien: Barberuak (edo bateonbat bereziki?) maxiatzea, parregarri jartzea, beren arrokeriak gaitzetsitza. Litekena, aita eta anaiari, Barberuen aldetik jasandako nekeen ordainketa bezela, lantxo au eskeini nai izatea.

Mogelen idaztia, jakina denez, bizkaiko euskalkian eta elkarizketa eran eginga dago eta, noski Peruren aoz egilea bera mintza da. Solakideak bi baldintz bear zituzten egilearen naia betetzeko: gizon ikasia edo sasi-ikasia izatea batetik; aldi baten Euskalerritik kanpora bizi izana, bestetik, au baida, eta beti izan ere, aaztutako euskeraren aitzaki arrunta. Itzaurrean aipatzen dituen apaiz, praile edo Jauntxo aietakoen bat autu zezakeen Mogelek Barberu baten orde, edo kultura mailan ageri geiagoko norbait. Baino, zenbat

(2) LUIS MICHELENA: *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo. XII-XIII*. 1978-1979; págs. 201-224.
 (3) JUSTO GARATE: *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Mogel*. Junta de Cultura Vasca. Bilbao, 1936; págs. 36-41.

eta goragokoa, orduan eta zailago, arrisku aundiago beretzat nai zuen kritika egiteko: benetako jakinduri eta sasi-jakinduri edo arropuzkeriaren aurkatasuna agertzea. Errasago zitzaion Barberuen aurka idaztea, ez bait zuten auek beste Jauntxo aien ospea, egunerokoa bait zen bere itxura, lan edo esaeragatik aotan ibiltzea. Ain gogoko izango zuen, gainera eta dirudienez, aiek salatzela!

Bestalde; leen esandako sendi giroari esker, sendakintza kutsuen bat itxasiko zitzaion. Erizpidean, noski, aita eta anaiaren liburuak. Ezagunak zituela agertzen zaigu Peruren aon jartzen dituen itz eta esanengatik, anatomia alorrean batez ere. Martín Martínez eta berak idatzitako "Anatomía Completa" txit ezagun eta zabaldua zen garai artan eta arren izena oso ospetsua sendagile artean (4). Barberuaren anatomia grina zala eta, "Barbero Martineziano" esartzen dion deitura ez da batere arritzekoa.

Bainan geiago luza gabe, sar gaitean Izketaldien mamiean.

Landaostatu bateko arandegian arkitzen du Peruk kondaira ontako Barberua. An zegoen, oso apain jantzia, eta aundikiren bat zelakoan, txapela eskuan eta lotsaturik, dionez, agurtzen du baserritarrak. Ez digu esaten egileak non arkitzen zen etxe ura bainan bera Markinan bizi zanez gero eta izkuntzari begira, an nonbaitekoa zela ondoretu diteke. Bein edo bein entzuna det Azkoitiarrak bereganatu nai luketela Benta ura: oroitzeokoak dire Mogelen itzak Peru idurizko Basarte Unibersitatean Irakasle zela dionean. Eta Basarte izena du, ain zuzen, Azkoiti inguruko landa batek, XVIII'garren menderate Gipuzkoako Billera Banakoak egiten ziren lekua (5). Ez dakit Markina inguruan beste Basarterik dagoen eta Basarte, baso-arte ez balitz, eta bai Azkoiti bailarakoa, bere garaiko zituen Azkoitiako Zalduntxoekin Mogelek arremanik ote zuen kezka bizia sor arazten digu, auek ere irakazkintzara ain emanak zeudelarik. Gogoratzekoa da, gainera, 1872'garren urtean erri onetan jaio zela bere illoba, euskal idazle ain ezaguna degun Vicenta Antonia Mogel, anai Juan Ignacio bertako sendagilearen alaba.

Kezka au erabakitzeo argibide geiago gabe, uz dezagun zalantzan eta nornairen eskuetan, gu orain Perurengana biurtzeko.

Bata besteen aurrean daudela, noletan alako Jaun apain batek oinak ipini ardo-etxe ontan?, galdetzen dio Peru arrituak. "Nas bada orainago igarozun erriko Barberua", erantzuten du onek, bereala agertzeko gairu bat ikustera deitua izan dela eta zilarrezko errial batez ordaindu badute ere, doilorkeriz tragotxo bat ere eman ez diotela; baraurik biurtzeko bere etxea urruti dagoelarik, zerbait jan eta kuartiloa edatera sartu dela leku artan.

Au entzun eta bapatean asten dire Peruren zirikadak: nola leike besteren gaitzaz bizi eta, gaixorik ez badu, janik ez duen Barberu tzar bat ain arro eta apaindu aste erdian eta bidez dijoala ibiltzea?

(4) LUIS SANCHEZ GRANJEL: *Médicos Españoles*. Seminario Historia de la Medicina Española. Salamanca, 1967; pág. 199.
 (5) JESUS MARIA BERISTAIN: *Pequeña Historia de... Azcoitia*. C.A.M. de San Sebastián, 1970.

Barberuen apainduri eta lanbideari buruz eztabaida zorrotz bat sortzen da bien artean. Peruk bere erriko Barberua gogoratzen du eta onek esango leuken eran, soineko bitxidun eta jazki berriak ez dutela jakinduriarik ematen. Trebea izan arren, bere jazkera txano gorria eta gainetik berrogei urte izango dituen txapel ezkeraga, aundia; oinetan berriz, basoan ibiltzeko onen oinetako meiairen ordez, bere adineko izango den zaldiz dabilela. Zerbaita-gaitik dio, Jaunak libra gaitzala Barberu modako, Sendagile txar, apain eta berritsuetatik: "kortejante" utsak direla, garaiko jazkeraz besterik itz egiten ez dakitenak; jauntxo itxuran eta aundikiak bainan apainago, zer kurazio egin alako Barberu ergelak, odolez zikin ditezen beldur, nola sangria egitera gaixoengana urreratu?

Ez zaizkio atsegin itz auek Barberuari: ondo jazteak sor arazten duen edo... berari iruditzen zaion, begiramenak garrantzi aundia duela erantzuten dio. Esan bearrekoa da, Barberu artean beintzat, jantziak aspalditik zerbait esan nai zuela. Bi motako Barberu edo Zirujau ziren ezagunak antxinetik: "latino" eta "erromanzista" izenekoak. Leendabizikoak gizatasun ikastaroak (humanidades) bearrezkoak zituzten titulua lortzeko eta ezaugarri bezela jantzi luzez, togaz, jasten ziren. Bigarrenak, ez zituzten egin bear ikasketa aiek eta jantzi motzaz zebiltzen. Leenengoentzat okerrena, bi urte geiagoan ikasi arren, besteen lan berdina egiten zituztela eta au dala eta bere kopurua gutxitzen joan zela, geienak bigarren motakoak izan arte. Geroztikan eta titulua lortzeko baldintzak aldatuaz, ikasketa berezirik gabe naikoa zuten bost-bat urteetan norbaitekin lan egitea beretzat baimena eskutaratzeko (6). Badakigu Peruren solaskidea "latino" ez zela eta jantzi luzea erabiltzeko baimenik gabekoa beraz, bainan egokiagoa zeritzaion, agian, apain agertzea lenagoko, eta beretzat eskola gutxiagoko, Barberuaz be-reizteko.

Bere erriko Barberuen kontuekin jarraitzen du Peruk. Oneri, dio, soineko baldarrak baino neurri gabe edateak kalte geiago egiten diola agertuaz. Naikoa au entzutea bere lagunak, bat-bateko amorruekin, ura eta arren antzekoak lankideen lotsa besterik ez direla botatzeko: tabernetara emanak, gutxi ikasi eta aisa errezetatzekoak; tresna txarrak beti eskuetan; itzontziak eta geiago ez, sendagile batzu bainan izen ohea lortua izan badute ere. "Perdulario" oiek, edarira emanak, gaztaroan ikasiak aaztuak dituztenak, gure langintza onaren izena lurperatzen dute. Zer dela eta lan prestua erropa lotsagarritz laidotu eta desonrau? Izen ona eta "idalgija" egina daukala bizkaitar den aldetik, ez bere tituloengatik, erantzuten dio Peruk.

Bata besteekin ados jarriko ez direlakoan, Peruk bukatzen du galde-tuaz ia beinere entzuna ez ote duen, "bakotxa bere zoruak bizi dabela" Gero esateko: "A, bizi dau bere zoruak, ta zu zeuriak: eta guk ¿nori sinistu? ¿Ari edo zuri?"

Soinekoaren eztabaidakin lotzen dute Barberu ikasketen eta lanaren

garrantzitasunarena: ezerezkoa baserritarrentzat, arreta aundikoa bestea-
rentzat. Onen ikasketaz dakiguna, soilik, au da: irakurle aundia dela eta
Madridenten, Ospitalean bi urte egin zituela, bertan asko ikusi eta asko ikusiaz
asko ikasten dela. Antxinakoak, dio, ez zutela Ospitalean oinik jartzen ez
eta, noski, anatomiarik ikasten. Berak, osteria, bai; leku oietan gorpu-ebaketa
edo autopsiak egiten direlako, gorputzaren zati aundi eta txikiak non diren
ikasteko, ildakoaren gaitzak eta auek nola sendatzea ere bai. Bere jakindu-
riaren ezaugarri zirela jasandako "iru esamina crubel tribunale lotsa aundiko
baten". Eta aieri esker Barberua, Sangradoria eta Zirujauba zela.

Sendakintzara jotzen zutenak, lanerako baimena lortzeko, Protomedi-
kato zeritzaneren aurrean asterketa edo esamina egin bear zutela egia da; ez
ordea titulo bakoitzarentzat berea. Iru deitura oiek bat besterik ez bait ziren.
Ezberdina, maila goragokoa, leen esandako "latino"-arena zen. Eta auekin
zer ikustekorik ez zuen gure gizonak.

Onoko onek, aundikeriaz berriz ere, esaten dio Zirujaiak aurrerapen
aundiak egin dituela garai ontan, Barberuak sendagileen parean kokatze
ainakoak. Prestaera oheago au aitazen du Mitxelenak (2) ere XVIII'garren
mendeko erditik aurrerakoan. Ala zen, izan ere, Reales Colegios de Cirugia
izenekoak sortu ziranetik: Kadizkoa (1748), Barzelonakoa (1768) eta
Madridentekoa (1780, beranduago irekia, ordea), bainan bakoitzen ikasleentzat
bereziki.

Barberuen esanak ajola gutxi Peruri, bizargile eta sangradore utsaz bait
zekan. Eta orrela, arpegira bota ere emen txikitandik edozeinek bizarra moz-
tutzen ikasten duela eta baserritarrek, esku bigun eta samurrak balituzkete
eta ez laia, atxur eta aizkora kirtenekin azalduak, berak bainan obeto egingo
luketela. Bizargilea, bai eta odola ateratzea bezela, noizbeinka bearrezkoak
direla, azkeneko au egiten den bezin sarri ez izan arren eta baimena ematea
bere eskuetan balego, sendagileak ikusi ondoren, bere baimenez eta ordainik
gabe bearko litzakela. "Zulatzegatik geiago ordaintzen badizute eria ikus-
teagatik bainon, diru naiak aiek ugaritzera eramango zaituztenen beldur bait
naiz".

Neurririk gabeko zulatze au Barberuen aurreko salaketa baizen beti.
Gaixoen aurrean arkitzen zirenean artzen zuten leenengo neurria izanik geie-
netan, geroago ikusiko degun bezela.

Bereala erantzun Barberuak: "Orren anima galdutakoak egiten gaitu-
zu? Zer dakite medikuak guk bainon geiago noiz bear dan sangria?". Eta
Perurentzat, diru zalekeriak itsutuko ez dituela medikoak, beintzat, eta bes-
talde, zuek bainan urte geiagotan ikasi duten sendagileak aina dakizutenik ez
neri esan; argi dago zuen lekua aien menpekoa dela: "bakoitza bere tokian
eta ez agertu eragin soinekoz edo aoz ez dana", dio esandakoak borobil-
duaz.

Naikoa ez balitz oraindik, geroago esango diona: eskerrak eman dezaz-
kela Maisu eta Jauna deitu eta beroritzaz esaten diotelako: besteen eritasu-
nez, min egin eta odola ateratzeaz bizi denean; osagarri izenekoak eman eta
iltzera badoa, aitzaki ugari: leenago ez dei izatea, esandakoak ez egitea eta
abar; arrezkero zer eginik ez dagoela, apaizari deitzeko eta orrelakoak. Sen-

(6) MANUEL USANDIZAGA: *Historia del R. Colegio de Cirugia de San Carlos de Madrid*.
Cons. Sup. Invest. Cient. Madrid, 1948, 12^otik aurrera.

datzen dela?, eskerrak deitu zinduztelari, eriotzeko autsetatik atera dezula eta abar non nai zabaltea.

Ainbeste aipatzen dituen autopsiak, arakinen lana besterik ez dire Perurantzat. Eta maltzurkeriz galdetzen dio zer anatomi ikusi edo nongo Ospitaletan ikasi duten, berriketa gabe, ezurak bere lekuan jartzen dakiten andretoak, berak bainan obeto osa belarrak ezagutzen dituztenak. Odola ateratzea, ikara gabeko eskumutur eta begi soilak dituenentzat ez da, ostea, alako zaila; amabost egunean ikasiko lukete emakume aiek. Eta zuek ainbat ondo edo obeto dakite zaurietan txaplatxuak edo berez askatu ezin diren lokarriak jartzen. Nork igarri, azkenik, zauriak osatzeko belarrak zein diren dakizuten ala ez?

Barberu aserreak, mendekio bide, botatzen dio Peruri norbaiteri bizarra egingo balio, arpegi osoa odoletan utziko liokela eta sangria egin bearrean arkitzekotan, zulo ederrekin edo zain ebakiarekin geldituko litzakela gaixoa. Eta zer esan ez ezur ausi edo istripu aundi bateko zaurituen aurrean arkiez gero.

Elkarrizketa bizi eta sutsu onetan, izeka eta zuriketa artean, aurrera zijoazen arratsalde artako orduak. Gaua gainean eta gosea nabarmen. Zalantzarik gabe etxe artan bertan apaldu eta oeratze erabakia artzen dute biek bapatean.

Mai-zapi eta erratiluak aurrean dituztela agertzen zaigu alkarren arteko leenengo begirune agiria: artean bakoitzarentzat ez jakina zen bestearen izena, agertzea. Peruren galderari don Juan Jauna deitzen diotela esaten dio Barberuak; arreri, Peru eta Periko, jaun edo don bere izenari erantsiak ez dituela beinere entzun. Peruk orduan: "Emendik aurrera nik zuri Maisu Juan eta zuk neri Peru" deitza erabakitzen du.

Luze idatzi diteke Maisu Juaneri batere atsegin ez zitzaizkion jan eta edariataz, ez dijoakio ordea nere asmoari. Bai, ostez, asieran gerta zen zer-bait edatzea, oraindik ezagutzen ez genuen Juanen gizantza berri bat azaltzen diguena. Baserrietan oi den eran, Peruk apari aurretik maia bedeinkatzea eskatzen dio Maisu Juaneri eta onek beinere egin ezikan ez dakiela nola eta berak egiteko, erantzun. Norbaitek ikusi eta, zer esango luke Madriden egon eta alako jaun apain baten aurrean baserriarrak maia bedeinkatzea?, dio Peruk. Alaz ere, azten da berrero, txunditurik, ixiltzeko: Juanek Aita Gurea euskeraz ez dakiela eta erderaz erantzungo diola, entzutean.—"Etzara ori esaten lotsa?" Kristo berak erakutsitako otoi-tza, txikitari gurasoekin edo maisuekin eskolan ikasi zenuena, ez dakizuela? Eta bapatean galde: "Ez-konduba zara? Baozu umerik?". Baietz, dio Juanek, iru dituela, bainan dotrina erakustea amarena dela, ez berea. Gainera, dakienez, Jesukristok ez zuela euskerarik erabili.

Perurantzat aurrei gauza onak erakustea aitaren egitekoa da, ez amarena eta au esan ondoren, asitako otoi-tza amaitzen du. Ez ordea, burutik kendua zuen txapela jartzerakoan, Maisu Juaneri bere txapel parregarri, euri edo eguzkitik gordetzeko lain ez dena, otoi-tz garaiean ez kendu izatea, arpe-gira bota gabe.

Janari eta edariaz marmaka zijoen Maisu Juanen aparta, nonaiko eta

Benta ontako otorduen berezitasunak adierazi naiean Peruk alperrik itz egiten zuen artean. Amaitzera zijozela, ustekabean, non etxe barrango norbaiten bertsoak entzuten dituzten. Liluratua Juan, jaso nai ditu eta berresatea eskatzen dio Peruri berarekin beti daramazkien tinta eta papera atera bitartean. Idaz-bide aukeramaitea, ainbat bakan agertzen bazaigu, liburuaren egileentzat bearrezkoak ziren geroago ezagunezak izango zitzaizkion itzak Barberuak jasotzeko. Gogo gaiztoz ere pentsa diteke salaketa bat eskutatzen dela: debekatuak zituzten errezetak egiteko zeramazkiela.

Leenengo bertuen atsegina aserreak bihurtzen da bereala. Arratsaldean zear Maisu Juanen arrokeriak itzaltzen joan baziren ere, Mogelek ez zuen oraindik naiko apal utzi, dirudienez. Geiago bear zuen eta ortarako, gau artan bere semearekin ostatuan gelditu zen, eta naiko edana zegoen, bertsolaria aukeratu. Asierako bertsoekin ezer ikustekorik ez zuten urrengeotan, gau madarikatu batean gerta zitzaizkion zoritxarrak bota zituen onela esanaz: etxeruntz erdi moskor zijoan gau artan erori eta nola "mankauta, bizkar ezurra auzirik gelditu zen". Egun sentiakin batera, eraman zioten etxera Maisu Juan Barberua, ondoan deabrua ikustea naiago zuenean. "Borreru"-arrek, alde batetik bestera biratu ondoren, erremientak atera eta "otso biotzaz barre eginda" esan zien an zeudeneri zauriak ez baziren ondo saiatzen, gangrena txar batek joko zuela; ez bait ziren belartxoekin sendatzekoak. Au entzun eta bersolariak eman zion ostikoaz lurrera bota zuen etxe artan geigo sartu eta zedin.

Azkeneko xeetasun oneri esker, konturatu zen Maisu Juan nor zen kantorea. Ez bait zen aaztutzekoa Txomin izenez, beti mozkor, etxe ondatsaile, gorretan sartua eta sarri alakoetan arkitu izana.

Antxin-antxinatik osaketa lanean diardutenek edonoren esaketa txar edo maxiaketetara ondo oituak daude: itz samurra entzuten batzuetan, eztenkada mingarriak besteetan, oraingoan Maisu Juanek bezela. Ez da bada arritzekoa gure Barberu minduak bere eskuz jipoi bat, ausartari, eman nai izatea bertsoak botatzen ari zenean. Eta emango ere Peru pakezalea erdian ez arkitzeaz. Gerora, lasaiturik, entzuten jarrai zuen ezaguna ez zitzaion gertaeraren bukaera adieraziko zuelakoan. Ala gerta: "borrerua" etxetik kanpora bial bezin askar, auzo erri bateko "andratxo on eta errukior bat" ekarri zioten. Zauriak ikusi ondoren esan zieten eskerrak Barberua bota zutela inpernua antxe bertan ikusi ez bazuen nai. Pasma belarra, pasmoa eragozteko eta orma belarra alboa gozatzeko jarriakin, egun gutxi barru senda eta indartua arkituko zen itza eman zion; ala gertatu ere astean bertan.

Egilearen asmoetan sortu zitezkenen artean, naiko arina Patxiri gertatutakoa. Orregatik, apika, aserrearen urren Maisu Juanen ateraldia: iraina aaztu eta ordi batek alako bertsoak egin eta ain ondo botatzeaz arritzea.

Lotarako garaia. Peruren logureari berdin zitzaizkion oe kaskar eta zapi latzak, arkakoso edo tximitxak; ez bait zioten loerik kenduko. Alako gau iguingarri baten aurrean, naiago du Juanek sutondoan eserita gelditu.

Biamoneko egun sentiakin an dijoa Maisu Juan, aalik eta azkarren gosaltzeko, Peru esnatzera. Alako presarik gabe onek, oi dituen goizeko

otoitzak egiteko denboratxo bat eskatzen dio. Baita esan ere Peruk bezperan zer gogo gutxiz jan aurre eta ondorengo otoitzak egin zituen Juanek; okerrago oraindik, egiten ez zekiela. Eta eten gabe: "Jaunak daki zer libururen irakurle aundia zeran! Nik badakit, ondo jakin ere, nere lanak ez direla naikoa gara eldu eta uzta ona izateko. Eriak sendatzeko Jainkoari laguntza eska bear zeniekela bururatzen zaizu?"

Edandegi batean alako sermoiak entzutea arrigarria zaio Maisu Juaneri eta norbaitek entzuteaz erejtzaz artuko luketen beldurra sartzen zaio, dienez beintzak. Peru, bere lelora berriz: adiskidetasun izenean eta minberatu nai gabe, ia Jainkoaren itza entzutera joaten oi dan Meza Nagusietara edo bizargintzan bere eta besteen animen kalteen gelditzen den, galde nai dio. Eta galdera onen urren besteak etorri aurretik, Barberuak moztu, zer egin bear lukeen jakin arren ez duela betetzen ziur dagoela esanaz eta... ohea dela orain gosaltzea. Sabelak ardura geiago ematen diola arimako gauzak bainon erantzun gabe ezin Peru ixilik egon.

Peruk agertarazi nai dizkigun kristau oiturak, baserrietatik alde beintzat, ain zabalduak eta sakonki sartuak egotea, zail da gaur sinistea. Mogel apaizak, ordea, ezin bere dotrina agertzeko aldi au galdu. Barberuaren kristautasun aldeko ajolagabe azaltze onek beste zentzu bat ere izan zezakeen egilearentzat: geroxeago Maisu Juaneri gogoak emango dion aztakeriaz, burua zertxo bat zuritu nai izatea.

Dirudienez, Mogelek ez zuen oraindik naikoa zapaldu gure Barberu gizajoa eta ontarako makurkeri aundi baten egile biurtzen du. Ara gertatua: bezperako gastu eta gosaria ordain asmoaz etxeoandreaki kontua eskatzen diote. Geiegikoa arkiturik, beraldetik kontaktak egin ondoren gutxiago eskeintzen diote eta emakumeak ez onartu. Zortzaile ordeztartzaile biurtzeko, au bururatu zitzaion Juaneri: jandako urdaiaren azala lurtean jarri etxeoandrea erdi itxua zapaltzean ankazgora joan eta ebaindua gelditzeko. Ala egin eta gerta ere: amonak lurra jo, burua ireki, arpegia odoletan eta beso atereakin gelditu. Itxura artan arkitu zenean andre gajoa oiuka Barberu baten eske eta Maisu Juanek, bera alako bat zela aitortuaz, besterik bear ez zela agertu. Eta bere asmoa ziaro betetzeko, ara non, etxeoandreak, zorrak aaztu eta sendatze bazuen bazkari ederra eskeini.

Etxe artatik ez joanak izatea zorionekoa zela argi arazi ondoren, amona oeratu eta esaten dio nola leenen sangria egin bear den, burua sendatzeko gero eta lekutik alde dagoen ezurra ondo kokatzeko azkenik. Aserre zebilen Peru inguruan eta goza aleginak egin ondoren, bere lanera jartzen da Barberua ur beroa, ontzi, lotura eta txaplatak eskatuaz. Amonak dituen zain onari eta Juanen lantzeta berri, zorrotzari esker odol ateratzeak minik egingo ez diola esan eta errez zulutzen du beso onean. Artzen du gero elbarritua, begiratu utsekin aiezka asteko: ez bere lekutik aterea baizik autsia bait dago ezurra. Autsi txarra, gainera, Jainkoak ez, besteek osa ez dezaketena.

Bere ez jakintasuna ezkutatu nairik, zer eginik ez dagoela berriro esanaz, koipea eman eta enplastoak jarri ondoren lasai gelditzen da alde ortatik. Bukatzeko, ordea, buruko zaurian zerbait egin bear eta sendaketa oso mintua izango zela esan aurretik: jostorratza, lantzeta, ozpina eta abar erabili

gabe ezingo bait zen zuzendu. Kriselu baten argiaz ondo ikusi ondoren, arpegi eta ebakia garbitzen asterakoan, ezur ikaraz dardar, izerdi larri eta begiak lauso, il zorian dagoen sentimena sortzen zaio amona gajoari. "Obeago zuretzat, diotza Barberuak; orrela min gutxiago nabaiko dezu". Kutsutausunaz aazturik, orratzean aria sartzeko agintzen dio neskameari. Amonari, berriz, dena ondo ateratzeko eska dezaiola Jainkoari, berak gurutze seinalea egingo duen bezela.

Jostorrazaren sartu naia eta emakumearen karraxiak batekoak izan ziren. Baita ere geldi erregua eta pakean iltzen uztea. Zer geiago nai zuen Barberuak aleginak egin dituela eta gerta dedinetik aske gelditzen dela esateko. Eta, asarre itxuran, or konpon esan eta Jainko eta neskamearen eskuetan gaixoa utzirik, alde egiten du.

Benetan aserre zegoena Peru zen eta etxe artatik atera zirenean ekin zuen Maisu Juanen aurka, bere gaizakeria arpegira boteaz eta ez gutxiago emakume gajoa itxura artan eta laguntza geiago gabe uzteagatik. Kezka aundi batek eztatzen zuen berebat: ekintzaren ondorioak, justizi aldetik etorri zitezkenak batez ere; errurik gabe bertan naspilatua ikusten baizan edo zitekeanean beldur, beintzat. Denaz gain, zorrak ordain ez eta iges egitea, ordaintze asmoa berak izan arren, lasai uzten ez zuen. Ajola gutxi Maisu Juaneri Peruren erretolikak; lege eta legegizonak berdin zitzaizkion eta, aiek aina zekienez, arpegi emango ziela zion.

Peruren "Landeta" baserriruntz zijoazela, auzoko eliz baten kanpaia entzun zuten: il zorian zegoen norbaitentzako elizakoen berri emanaz. Ondo zekien Barberuak aien bearrean ez zela arkitzen Bentako etxeoandrea, alaz ere ez zeuden ain ziur biok. Ausarti, Maisu Juan (edo urduri, nork jakin?) iltzen bazen lasaiago geldi zitezela bota zion Peru arrituari.

Azkeneko gertaketa larriak aaz nairik, izketa gaia aldatu eta Peruren euskera garbia goratzen asi zen bere laguna. Kastillan egon eta geroztik kalean bizi izan direnak itz erderazkoak erabiltzen dituztela Juanek sarritan esan ondoren. Peruk zebilkien euskerak txunditurik uzten duela, dio. Aurrerapen bide, itz garbiak paperean jasotzeko prest dagoela bere izkuntza aberastu, eta baita ere erriko apaizari mesede bat egiteko: berari entzuna bait zuen euskerazko sermoiak gertutzean naiko zailtasun arkitzen zuela. Peruk, berriz, lan aundia zetorkiola, erantzun. Baserrira eldu aurretik, txerri iltze batera eraman naiean bait zegoen. Aren erraiak, esan oi danez, gizonen antzekoak izanik, egokitasun ohea ezin arki Juanen jakinduriak, bai anatomi nola euskera aldetik, neurtzeko.

Ez da ez lan erreza izango nerretzat, dio Maisu Juanek, txerrien anatomia ez baidut ezagutzen. Bereala, ordea, eta gai auetan bere jakintasunak agertzeko, anatomia atalak, banan banan, izendatzen asten zaio: osteologia, edo ezurrena, esplanknologia edo erraiena, miologia edo giarrena eta anjiologia edo zainena. Peruk, tuterik ulertu gabe, ori guztia zertarako den, galdeztzen dio eta Juanek erantzun, gorputzaren edertasunaz Jauna eskertzeko, kanpo eta barneko eritasunak ezagutu eta sendatzeko.

Ez zen ixiltzen erreza gure Peru eta ala errepika Barberuari, autopsi edo ebaketa bat egiterakoan beinere bururatuko ez zaiola Jaunari eskerrak

ematea. Onetaz gain bere ezaguera kaskarrak berrero ager arazteko, galde orain: zuek, nola asmatu barrengo gaitzak, gaixoak zer duen ezin igarririk zabiltzatenean? Ori bai; edonoreri miina atera arazi "ugarrik, zetakarrik edo kortikarik" ote duen ikusteko; eskumuturra artu eta pultsoa makal, pixkor, berdin edo ezberdina den begiratu. Gaixoaren etorkizuna dala eta Barberu bakoitza bere aldetik: batek ilko dela, besteak ezetz; onek bereala menderatuko dela gaitza, arek luzaroko duela; batentzat arin eta pizkor odola atera bear zaiola, bestearentzat ilko litzakela alako pultso makalakin. Orra anatomiak dakartzkien mesedeak! Edari samin, minkatz, usai txarreko, errai erabiltzaleak badaezpada ere, gaitza ezagutu gabe, eman: gaixoa iltzen dela, or konpon; sendatzen bada, zuen garaipen bat bezela nonai azaldu. Odol kenze edo edari zatarrrik gabe inor berez senda ezin balitz bezela.

Lasai geldi zitekean Peru alako itzaldi jakintsuen ondoren. Ager dago, ordea, Mogelen sendakintz gaitako jakinduriaren ezaugarri zirela esanaldi auek. Eta naiko ez balirake, buru barrengo eun edo tejidoen izenak esan arazten dizkio Maisu Juaneri, euskera zarpailetik txukunera bereala Peruk alda ditzan.

Eta onela mintzatuaz, txerria iltzen ari diren lekura irixten dire gure bi gizonak.

Emen, Basarte Unibersitateko Irakasle bezela aurkeztua izan zaigun Peruk, ematen du, eman ere, leenengo irakaspen jatorra, bai anatomi nola izkuntzaren aldetik orain arte deituraz genuen Maisu Juan, ikasle biurtuaz. Bana-banaka izendatzen ditu ildako aberearen gorputz zati guztiak, berrogeitamarren bat izen errenkadan boteaz. Txunditurik gelditzen da Barberu gizajoa, baserritar batek ainbeste zekienik eta euskera ain aberatsa zenik uzte ez zuela aitortuaz. Paperak eskuetan, an idazten du itz zerrenda, bere lankideeri egunen batean erakusteko, dionez.

Irakaspen bikain onekin amaitzen da, egiaz, Barberuen eginkizunetaz elkarrizketa auek azaltzen digutena. Ondoren datozenak ez dute Maisu Juanen nortasun edo berezitasunetaz argi geiago ematen.

Txerriena bukatu ondoren, etxeruntz abiatzen dire, erritik ordu parebatera zegoen "Landeta"-ra iluntzean iristeko. Arrera ona egiten diete etxe-koak eta pozik apari ederra gertu ere.

Peru eta Juanen arteko elkarrizketak gogorak izan arren, beren arteko adiskidetasuna sortu arazi zuten eta au sendo naiean, etxe artako edozer bearretan senda aleginak egiteko eskeintzen da Barberua. Eta orain artekoak entzun ondoren arrigarria badirudi ere Peruk, eskertuaz, baietzkoa ematen dio; beregana joko dutela bear duten bakoitzean.

Solasaldi eta aparta amaitu ondoren, etxekoekin batera errosarioa erretzatzen dute. Eta gero, bezperako nekeak aaztu araziko dizkieten oe bigunetara zuzentzen dire.

Amar ordu lo egin ondoren, Juanek ez du gosaldtu nai biaramonean. Gaueko aparta ugariak upatsak sortu eta jan arinean egon naiago du. Eguna ondo bete eta gauza berriak ikasteko, landetako lan bereziak erakutsi nai dizkio Peruk, baina aurretik eta bearrezko deritzaio soineko apainak kendu eta baserritar legez jaztea. An ditu aurrean arek eramandako erropak: "al-

kandora, jake zuri eta gerrestua, praka odolestuak, abarka, kalzerdi marrazguzkuak eta txapela". Banan, banan jarri ondoren, abarka eta amantarrantzat laguntza bearrean arkitzen da, ez baidaki nola jartzen diren. Erropaz... eta itxuraz Maisu Juan alda ondoren, an dijoaz lanean ari diren auzoko burniola ikustera.

Egun artan eta urrengoan ola artako, baserriko, zurgintza, linuaren eta beste era ezberdineko lanen berri ematen dio Peruk eta ikusi ere Barberuak. Elkarrizketa auen orrialdeak irakurtzea txit atsegin eta denontzat onurakor izan arren, nere gaitetik urrun gelditzen dire. Ez naiz aietan luzatuko. Baina nere eginbearra amai aurretik, eta ez dakienentzat batez ere, Bentako amonarekin gertatuen berri eman nai nuke.

Sendatu zen andretxoa baina Peruk uste bezela, epaibideak zer eginik izan zuten. Ango neskatxak dena salatu ondoren, epailea arazoan sartu eta Barberu apaina atxilotzea erabaki zuen. "Landetan" zeuden bigarren egunean, maiean jarri eta bazkaltzeko prest zirela ara non, bere iskilu eta guzti, alguazil bat agertu zen atarian, Barberuen bila. Etxe artan ez zegoela Peruk esan arren, ez zuen sinistu eta etxea miatzera bialdu zuen nagusiak. Alperrikako miaketa, ez bait zuen ezkutuan inor arkitu.

Zergatik zetorren galdetzerakoan, Jatetxeko gertakizunen berri eman zieten. Amona erdi itsua, il zorian egona, eta ain baldarturik utzi zuen gizon lotsagabe ura, eskribauen aginduaz, arrapatu eta kartzelara eraman bearrean zegoela. Egia, berarekin, arazoan zer ikusirik gabeko baserritar bat ere bazela, eta Bentan ziotenez andik irten zirenean, onuntzako bidea artu zutela eta orregatik zetorrela bera ere.

Aserre agertzen zen alguazila poto egin zuelako, eta gainera zionez, gizon ura ez arkitzeaz, nork ordaindu Bentako zorrak, bere eta eskribauen lanak? Azkenik ondo zapuztua eta biderako zerbait artu ondoren, agur egin eta joan zen etxeokoa lasai utzia.

Ez ain lasai, ordea, soineko aldaketak gaizka zuen Barberua. Ikaraz dardar, beldurra ezurretaraino, alguazila noiz isildu eta joango zen ez ikusirik, bere biziko une txarrenatakoa igaro zuela nabri zegoen. Gosea galdu, maietik altxa, benetan damutua —itxuraz beintzat— eta, Peruren gomendioz, erriko apaizaren bidez ordaintzak egin asmoz, denak agurtu eta zegoen eran, jantziak alda gabe, atera zen baserritik bere etxe alde pausoak zuzenduaz.

Bere agur onekin bukatzen dire Peru eta Maisu Juanen arteko Elkarrizketak.

Bidez, baserritarren antzean, zijoala, erropa apainen ongaitzak aztertutaz agian, beretzat kalteak aundiagoak izan zirela konturako zen. Baita ere, jantziaz aldatzea naiko izan zuela berekiko zuen izen ospetsua galtzeko. Baliteke ere, pozaren pozez orrelakorik ez batere pentsatzea...

* * *

Orri auen asieran, Joan Antonio Moglek euskera goratzeaz gain Zirujanu-Barberuaren oker jokatzeko eta jakintza kaskarrak salatzea izan zuela elburu, nion. Eta irakurleen gain uzten nuen nere susmoa egiztatu edo bastertzea. Zu, irakurle, beraz, zera epaile.

“Peru Abarka”-ren orrietan arkitzen dire, an-emenka, nik idatzitako denak; bai itzak nola beren lekua zerbait aldatu arren, nere kolkotik ezer aterra ez det. Maisu Juan baina obeak, trebeagoak eta, bear bada, jakintsuagoak izango ziren, noski, garai artan. Mogelentzat ez dakigu. Barberuen aurka esaten dituenak geiegikoak direla batzuetan? Bai noski; Elkarrizketen bizitasun eta minkortasuna geitzeko ekarriak agian eta beren kaltean beti. Ondo zorroztu zuen luma aiek parregarri uzteko! Eta lasai gelditu ere asmoa bete zuenean!